

3. FITXA

LAIKOEN ERANTZUKIZUNAK ETA MINISTERIOAK

I. TOPAKETAREN AURREKO LANA

1. GAIA ARGITU ETA ZEHAZTEKO

Fitxa honetan hausnartu nahi dugun errealitatea argitzeko -Laikoa, bere erantzukizunak eta ministerioak-, Fernando Prado Gotzain jaunaren “Harengan gure itxaropena” pastoral gutuneko puntu hauek irakurriko ditugu:

1. IV. kapitulua. Posible diren ametsak, «6. puntua. Laikoen ministerioak» (111-114 zk.).
2. IV. kapitulua. Posible diren ametsak, «7. puntua. Diakonotza iraunkorra» (115-116 zk.).

2. GURE ERREALITATEA AZTERTUZ

Aurreko testua irakurri ondoren, gure errealitatea aztertzeko denbora hartuko dugu. Galdera hauei erantzungo diegu, parte hartzen dugun kristau elkartearen errealitatea oinarri hartuta:

1. "Laikoen ministerio" gisa aitortuak izan daitezkeen zein zerbitzu eskaintzen dira, bai eratuak, bai aginduak? Zein da haietaz egiten den balorazioa?
2. Pastoral gutunean aipatzen diren laikoen zein ministerio jotzen duzu funtsezkotzat zure eliz elkartearen bizitza beteago baterako, eta zein ez dira ematen edo indartu egin behar dira gaur egun? Nabarmendu hiru. Zein funtzio zehatz bete beharko lituzkete ministerio hau jasotzen duten pertsonak?
3. Zer egin daitekeela uste duzu ministerio laiko horiek bultzatzeko? Proposamen zehatzak egin.

II. HASIERAKO TALDEAREN TOPAKETAREN GARAPENA

1. TESTUINGURUA

Topaketaren garapena koordinatzen duen pertsonak aztertu beharreko gaia azalduko du, bilera baino lehen egin beharreko lana aipatuz eta topaketa honetan eman beharreko pausoak azalduz.

Hasierako taldeko kideek topaketa prestatzen eman duten denboraren arabera, irakurketen edukiaren aurkezpen labur bat egin daiteke bileraren hasieran.

2. OTOITZA

Hitzaren irakurketa: 1 Ko 12, 4-11.

3. ENTZUTE ARIKETA

Parte-hartzaile bakoitzak hitza hartuko du, "2. Gure errealitatea aztertuz" ataleko galderen inguruan eginiko hausnarketa eta otoitza partekatzeko, eta besteen ekarpena arretaz entzuteko.

Galderak banan-banan erantzun daitezke. Taldeko kide bakoitzak hiru minutuko denbora izango du galdera bakoitzari erantzuteko.

4. ELKARRIZKETA ARIKETAK

Parte-hartzaile bakoitzari entzun ondoren, elkarrizketari bide emango zaio, partekatutako intuizioak ezagutzeko, adostasunak eta desadostasunak identifikatzeko, zalantzak eta kezak argitzeko... betiere erantzuteko planteatutako gaien inguruan adostasun baterantz urratsak emanez.

Elkarrizketa honetan, parte-hartzaile bakoitzaren esku-hartzeak ez ditu hiru minutuak gainditu behar, guztien parte-hartzea ahalbidetzearen.

5. PARTEKATUTAKOIA ETA ADOSTUTAKOIA JASOKO DUGU

Bileran esandakoa jasoko da, adostutakoa azpimarratuz.